

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko maiatzaren 25a
318. zenbakia. 23. urtea



ARGAZKIA: IBAN EGIGUREN

Benitoren *oroimena* astinduz

Oroimenaren oraina disko berria argitaratu du eta, horren aitzakian, haren bizitzaren egunerokoaz aritu gara hizketan.

05

Orioko kontuak
Eskoletako jaiak

08

Kirolak
Aiako neskak txapeldun

19

Iritzia
Joseba Orella

25

Herritarra
Shanti Arrieta

agirresarobe
 PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK •
 ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK •
 FATXADEN ERABERRITZEAK •
 IGOGAILUEN PROIEKTUAK •
 GREMIO KOORDINAKUNTZA •
 INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... •

ITURRIBIDE 8, 5.BULEGOA, ZARAUTZ
 BORJA AGIRRESAROBEC, ARKITEKTOA 635 731722

 **AKOBE ACTIVA**
JUAN ALBIZU

Etzetresna elektrikoak
 sukaldeko altzariak

Abeslari, 8 • 20810 ORIO
 Telfax: 943 83 12 49 • albizu@akobehogar.com

uranga
 autozerbitzua



Aliprox

Harria Gudar Telera 13-15
 Orio
 943 83 38 75

Alustiza Autobusak
 Justo A. Bidaluz S.L.

Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

 **Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net

 **azkue**

Tf: 943 13 04 38

Allianz 

Marigre Zaldua
 aseguru agentea

Euzko Orio, 10 behe-oina
 telefonoa: 943 13 47 80
 fax: 943 61 67 52
 e-maila: zaldua.dolores.pa@allianz.es

colavitegia
ANTILLA
jakelareta

Miramon Kalea, 2 • Tel: 943 83 23 00

Kinkladenda- Ume arropa

argine

www.lasone.com/argine
 Tel: 943 13 48 89

25%ko DESKONTUA FAMILIA
 UGARTEN TXARTELAREKIN

 **ARDATA moda**

Euzko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

Automóviles ZARAUTZ

ETXEN ZERBITZU DEIALA

ZARAUTZ: Tel. 943 13 13 50

ARKAITZ Taberna

Pinxoak,
 plater konbinatuak
 eta ogitarieko mundialak

ABESLARI KALEA, 11 • Tel: 943 83 16 57

ARISTERRAZU jatetxea

Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
 Telfax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

bodegasERRASTI, S. L.



Esleaklerako baratzailea
 Zuchugarai, Uetartako txakolina
 Ilagares, ardo gorri nafarra
 Bodegas Gallur: Señorio de Laungida
 Gallur eta Ardanlegi
 Arabar Errioxako ardoak

Euzko Biala, 46 Orio • 943 83 03 66 / 83 50 52 • E-posta: bodegaserrasti@cajamar.es

Badoaz Londresa

1

Bijoaz hiru bertso
asmorik onenez
gure bi kirolari
haundiren omenez,
Edorta ta Oiana
ezagunak berez,
Oriyo ez da Londres,
beharrik ere ez!
Halere aurten horiz
jantziko da Londres!

2

Lau urteko borroka,
lau urteko seta...
sarri etxetik urrun,
etxean tarteka.
Buruan beti Londres,
kirolaren Meka,
amets batean bizi
zineten zer gerta,
orain bizi ametsa
zuen da eta!

3

Borrokaz borroka ta
paladaz palada
ailegatu zerate
gorengo mailara.
Norbaitek esango du
domina falta da!
baina gu beti harro
sentituko gara
etortzen bada eta
etortzen ez bada!

318

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldeaPat Cowie,
Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

Publizitatearen diseinuaLore Berasaluze
eta Iker Gurrutxaga**Testuen zuzenketa**Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta**Ale honetako****laguntzaileak**
Egoitz Eizagirre,
Iñaki Iturain, Eñaut Martí,
Joseba Orella
eta Nikolas Zendoia**Laguntzaileak**

Garbiñe Manterola

Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

BanatzaileakCristina Burlacu eta
Iban Recio (Orioko)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.100 ale

KARKARA ez du bere gain
hartzen aldizkarian
adierazitako esanien edota
iritzien erantzukizunik.
KARKARAN argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik edo
zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin
(695 780 720)
edo publizitatea@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zale

LAGUNTZAILEAK**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Eskerrik asko trikitilari, zale eta laguntzaileei

Maiatzaren 12an trikitixa doinuak ekarri zituzten olatuek Oriora eta herritarren belarrietan egin zuten talka.

Trikitixa topaketa izan zen eta ia 300 trikitilarik egin zuten topo Orioko kaleetan. Musika eskoletan, barruan ikasitako kanpora atera zuten soinu eta pandero jotzaileek.

Musikariak ez dira, ordea, sarritan laguntzailerik gabe mugitzen eta irakasleak zein gurasoak izan zituzten alboan.

Laguntzailerik gabe gutxitan, eta entzulerik gabe are gutxiago. Herritarrek trikitilariari egindako harrera oso ona izan zen eta eskertzekoa da, horrez gain, Orion inolako oztoporik ez jarri izana.

Beraz, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu herriko giroa alaitzeko laguntza eman ziguten Udalari eta Olatu Talakako antolatzaileei. Baita hainbat baliabide utzi zizkiguten Orioko Herri Ikastolari, Karela kiroldegia, Harribil dantza taldeari, ZAST saskibaloitaldeari eta Salatxo abesbatzari.

Baina, bereziki, ikasleen gurasoei seme-alabei lagundu ez ezik guri ere, antolatzaileei, lagundu zigutelako. Fin-fin aritu ziren indarrez astinduz trikitilariak hauspoa eta panderoa, eta aire alai haiek ez lirateke guregana iritsiko gurasoen ahaleginik gabe.

Olatuak eramane zituen trikiti doinuak, baina gure musika eskolan ez ezik beste hainbat txokotan ere entzungo dira soinu txiki eta panderoak. Hurrengoan ere doinu berriak ez ezik horiek eskaintzeko musikari berriak ere etorriko direlakoan, mila esker. ■ **Danbolin Musika**

Eskola



Gutunerako oharrak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.



Bi eskoletako umeeek ikastolako aretoan egin zuten bertso-saioan, Zaraguetakoak kantari. KARKARA

Ikastetxeek jaialdiak egingo dituzte ekaineko lehen astebukaeran

Zaragueta Herri Eskolakoak izango dira lehenak, ekainaren 2an, larunbatarekin, egingo baitute haien jaialdia. Ikastolakoek, berriz, biharamunean, ekainaren 3an izango dute ikastolaren eguna.

Eskolek jaialdiak egiteko garaia izaten da ekainaren lehenengo asteburua. Aurretik, maiatzaren 21ean, *Gu ere bertsoan* programako bertso-saioa egin zuten bi ikastetxeetako ikasleek batera, Iñaki Gurrutxaga eta Jon Martin irakasleen gidaritzapean.

Ekaineko lehen asteburuan izango dira eskola eguna eta ikastola eguna. Ekainaren 2an, datorren larunbatean, eskola eguna izango dute Zaraguetakoek. Eguerdipartean, 11:00etan, hasiko da festa eta salda eta pintxoak banatuko dituzte eskolara gerturatzen direnen artean. Segidan, 11:30ean, ikasleen emanaldiak izango dira frontoian.

Atzetik, bazkaritarako garaia izango da. Txikienek jango dute lehendabizi, 13:30ean eta, atzetik, 14:30ean, helduen txanda izango da. Helduak bazkaltzen ari diren bitartean, tailerrak eta puzgariak izango dira gazte jendearentzat. Bukatzeko, arratsaldeko 17:00etan, musika-saioa izango dute eguna agurtzeko.

Hurrengo egunean, ekainaren 3an, igandean, Orioko Herri Ikastolakoek ere festa antolatu dute: ikastolaren eguna.

Goizeko 10:30ean hasiko da ikastolako jai, DBHko ikasleak kalez kale ibiliko baitira ttuntturroekin. Kiroldegiko ekitaldiari sarrera emateko, 10:50ean txalapartarien deia izango da eta atzetik ttuntturroak iritsiko dira.

Hala, 11:00etan, Haur Hezkuntzako umeeek, hizkuntza gutxituak gai bezala hartuta, ikuskizuna egingo dute. *Gutxitutako hizkuntzak erabiliz berreskuratzen direla irudikatu nahi dugu txikienen ikuskizunean. Horrela, gurasoek beren artean euskaraz hitz egin behar dutela azpimarratu nahi dugu*, adierazi digute ikastolatik. 11:30ean, Mirentxu Aroste-giri omenaldi txiki bat egingo zaio, ikastolan 25 urtez egin duen lanagatik, eta Gemma Etxabe lehendakariak oroigarria emango dio. Segidan, Lehen Hezkuntzakoek olinpiaden inguruko emanaldia egingo dute. Baina Aroste-gi ez da

omenduko duten bakarra. 12:15ean Manuel Lasarteri omenalditxoak egingo die ikasle, irakasle eta gurasoek. Jaialdia bukatzen denean, patata tortilla eta txorizo egosiz lagundutako hamaiketako izango da ikastola aurreko plazan.

Ikastolak 40 urte, liburua

Kultur Atelier eta Xabier Sukiaren laguntzaz, duela pare bat urte hasitako lana da maiatzaren 31n aurkeztuko duten liburua. *Ikastolaren historia modu bizian kontatuko duen liburua aurkituko dute irakurleek*, esan digu Zigor Saizar ikastolako langileak. *Ikastola guztiek 25 urte betetzean liburu bat kaleratu dutela konturatu ginen eta, orduan egin ez genuenez, 40 urteko langa gainditu aurretik kaleratuko dugu*, gehitu du Saizarrek.

Ikastolaren jiran ibili direnen testigantzak, ikasleen pasarteak, argazki ugari eta sorpresa gehiago bildu dituzte 132 orrialdetan. *Udalak eta Kutzak emandako babesari esker, familieki, ikasleki eta langileki, ikastolan izandako denek izango dute liburu bana; gero 10 eurotan salduko da*. Ekainaren 3an, Karelana, liburua erosteko aukera izango da; edo, hala dagokionak, debalde jaso ahal izango du.

Tren geltokiko igogailu berria uztail amaierarako jarriko dute martxan

Igogailua bera ekainean jarri arren, lan guztiak uztailean bukatuta izango direla aurreratu du Euskal Trenbide Sareak. Aurrerago, geltokiaren kanpoko aldean, beste igogailu bat ere egingo dute.

Maiatzaren 8tik 9ra arteko gauean tren-geltokira errepidearen gaineratik doan oinezkoen pasabidea jarri bazuten ere, oraindik ezin da erabili, izan ere, lan asko dago obrak amaitu bitartean.

Egindako zubia 17,50 metro luze da eta 5,30 metroko altueran dago eraikia. Ibaiaren ondoko igogailutik edo haren aldamenean jarriko dituzten eskailere-tatik iritsiko dira oinezkoak pasabide ho-

rretara eta, igogailua ekainerako jarri behar duten arren, gainontzeko lan guztiak uztailaren amaierarako prest izango direla aurreratu dute Euskal Trenbide Sarekoek. Izan ere, geltoki ondoan egiten ari diren biribilguneko lanak eta gerora egiteko asmoa duten saihebidera arteko errepide zatian lanean ari dira, seinaleak eta babes neurriak jartzen eta azken ukituak ematen, hain zuzen ere. ETSren

ardura da Arraun Teknifikazio zentro berrira arteko bidea egokitzea eta jadanik asfaltatu dute biribilgunetik hara arteko errepide zatia.

Igogailu berria

Igogailu horrekin oinezkoek geltokira iristea errazago izango dute, baina aurrerago beste igogailu bat ere jartzekoak direla aurreratu dute ETStik: *Igogailuaren helburu nagusia oinezkoen arriskuak saihestea izango da, nahiz eta askok gero ere errepidea gurutzatuko duten.*

Bigarren igogailu hori tren geltokiko lehen solairura igotzeko dauden eskaileren bestaldean egongo da; hau da, geltokiko beste igogailuaren parean, errepidearen bestaldean.

Geltokiko lehen solairuko atea gauean ixten dutenez, ibaiaren ondoan egingo duten igogailua hartuz gero, bidea etena aurkituko dute oinezkoek. Horrela, bigarren igogailuarekin, oinezkoek beti izango dute pasabidea eta errepidea goitik gurutzatuko dute arriskurik gabe.

Bestalde, lan horien ondorioz, behin betiko kenduko dute Aia eta Orio lotzen dituen errepideko pasabidea oinezkoentzat, eta gidariak zein tren erabiltzaileak seguruago eta lasaiago ibiliko dira.

Aparkalekuak

Igogailuak oinezkoen onerako izango dira, baina auto-gidari entzat ere izango da aukera tren geltokira gerturatzeko. Izan ere, geltokiaren azpian geratu den eremuan aparkalekua egokituko dute eta 55 autorentzako tokia izango da, baita ezinduen automobilentzako beste bi leku ere.



Geltokirako zubia maiatzaren hasieran jarri zuten eta igogailua ekainean ipiniko dute. KARKARA

LABUR

Dantza

San Juan bezperako saioa

Ohiturari jarraituz, Harribilek sorgin-dantza egingo du San Juan bezperan, Herriko Plazan. Horretarako, Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik aurrerako gaztetxoen parte hartzea beharrezkoa dute dantza taldekoek. Beraz, dantza saioan parte hartu nahi dutenek ekainaren 8an eman beharko dute izena, 18:30ean, Kosta Tailerrian.

Hezkuntza

Haurreskolako izen-ematea

Haurreskolako matrikulazio epea maiatzaren 11ra artekoa bazen ere, maiatzaren 9tik uztailaren 10era bitartean jaiotako eta jaiotzean dauden haurren gurasoek ere izena emateko aukera izango dute. Ume horiek matrikulatuz gero, urrian hasteko aukera izango lukete, araudiak eskatzen duen bezala, ordurako, 16 aste beteak edukiko dituztelako. Beraz, interes dutenek Maria Maestra haurreskolara gerturatu baizik ez dute, eta han jasoko dituzte argibideak eta izena emateko orriak.

Justizia

Azkueren hiltzailearen zigorra

Gipuzkoako Auzitegiak berretsi egin du Amaia Azkue hil zuen gaztearen aurkako zigorra. Hiltzailearen defentsak helegitea sartu zuen, esanez Ander Etxeberririk ez zuela Azkue hil, eta hiltzailea kalean dela. Hilketan izan zenean 17 urte zituen, adingabeei dagokien zigorra du Etxeberririk eta jar dakioken handiena bete beharko du: adingabeen egoitza batean 10 urte bete beharko ditu, eta beste 5 urtez zainzapeko askatasunean, urruntze agindurarekin; ezingo du agertu Oriora, Zarautzera eta Getariara bost urtean.

Ostegunetako azoka plazan izango da berriro uztailetik aurrera

Udalak hala erabaki du eta uztailaren 5ean izango da lehen azoka eguna plazan. Jai egunak edo ekitaldi bereziak daudenean, ikastola aurreko plazan egingo da berriz.

Duela urte batzuk hartutako erabakian atzera egin eta berriz plazara eramango du azoka Orioko Udalak uztailaren 5etik aurrera. Gauzak horrela, ibilgailuen jabeek adi ibili beharko dute azoka egunak egokitzen direnetan. Izan ere, azoka egunetan goizeko 06:00etarako kendu beharko dira ibilgailu guztiak plazatik.

Dena dela, udaltzainek ohar bidez abisuak jarriko dizkiete lehen astean bertan aparkatzen dutenei, azoka egunaz ohartarazteko. Horrez gain, plazako zutabeetan ere oharrak jarriko dituzte asteazkenero, herritarrek ohitura berreskuratu bitartean.

Hala ere, plazan festa edo bestelako ekitaldi garrantzitsuren bat dagoenean, ikastola aurreko plazara eramango da azoka, *egunez aldatzea baino egokiagoa dela uste dugulako. Asteazkenetan, esaterako, Usurbilen izaten da azoka eguna, eta guk egunez aldatuko bagenu, saltzaile bat baino gehiago ez litzateke etorriko; beraz, gure kalterako izango zen, esan du Miriam Uranga Merkataritza zinegotziak. Hori dela eta, uztailean bertan, hilaren 19ko azoka ikastola aurreko plazan izango dela aurreratu dute, Bisiguaren Festa izango delako.*

Deskontu kupoiak

KARKARAREN zenbaki honetan, lehenengo aldiz, Orion baliatu daitezkeen deskontu kupoiak banatu dituzte herriko merkatariek, Orioko Udalak sustatutako ekintza batean.

Hilean behin, hilabete bukaerako KARKARAREKIN batera, deskontu kupoez osatutako gehigarria banatuko da. Lehenengo alean osasunarekin eta edertasunarekin lotutako komertzioek egin dituzte eskaintzak eta, horiek erabiltzeko, kupoa moztu eta dagokion tokira joatearekin nahikoa izango da.

Aurten 6 KARKARA banatuko dira kupoeekin eta ordena honetan joango dira: maiatzean, osasuna eta edertasuna; ekainean, ostalaritza; irailean, zerbitzuak; urrian, etxeko gauzak, aisialdia eta teknologia; azaroan, janari-edariak; eta abenduan, moda eta oinetakoak.

Udalaren ekimen honetan, Arkupe elkarteak denez gain, herriko gainerako dendariak ere hartu dute parte.



Azken urteetan festetan edo ekitaldi berezietan bakarrik egin dira azokak plazan. KARKARA



Horrelako irudia festa egunetan baino ez da errepikatuko aurrerantzean. KARKARA

Aiako bi bikote garaile Gipuzkoako eskola kiroleko pala txapelketan

Maiatzaren 12an jokatu ziren finalak Hernanin. Aiako hiru bikote izan ziren lehian: alebin mutilak, infantil neskek eta kadete neskek. Mutilek ezin izan zuten irabazi, baina neskek txapeldun izan ziren.



Ezkerretik eskuinera: Maddi Aldai, Andrea Zipitria, June Aldai eta Garazi Eizmendi. KARKARA

Aia eta emakume pilotariak urte askotan lotuta egon dira Eli Lasak eta beste kirolari batzuk egindako lanarekin.

Badirudi berriro ere neskek palan jokatzen poliki moldatzen ari direla Aian, eta horren adierazgarri da Gipuzkoako eskola kiroleko pala txapelketan infantil zein kadeteak garaile izatea.

Lehen partidaren infantilak aritu ziren lehian. Garazi Eizmendi eta June Aldaik osatutako bikoteak partida borrokatua jokatu zuen. Tanto gogorak eta luzeak ere izan ziren, hiru minutuz luzatu zenik ere bai tartean. Dena dela, emaitzak bestelakoa adierazten zuen partidaren bukaeran, 25 eta 11 aiarren alde. Garazi Eizmendik egindako lana azpimarragarria izan zen eta June Aldaik oso ongi babestu zuen haren lana.

Bigarren partida, Maddi Aldai eta Andrea Zipitriak jokatu zuten. Partida geldoa izan zen orokorrean eta, aiarrak lasaitu ziren unetik, nagusi izan ziren. 25 eta 12 irabazi zuten.

Alebin mutilek ere jokatu zuten finala. Baina Aimar Aranberrik eta Kepa Arrutik ezin izan zuten txapeldun izan Hernaniko finalean.

LABUR

Futbola

Jubenilak ohorezko mailara

Orioko Futbol Taldeko jubenil mutilak mailaz igo dira. Clemente Fernandezek entrenatutako taldeak aurreko asteburuan jokatu beharreko partida irabaztea zuen helburu mailaz igotzeko eta lortu zuen, igoera fasean lehenengo bukatuta. Bestetik, Zarautzen seniorretan jokatzen duten oriotar neskek ere mailaz igo dira. Orain bigarren fasea jokatu beharko dute, beste maila bat igo ahal izateko.

Atletismoa

Jokin Redondo bosgarren

Jokin Redondo bosgarren izan zen Donostiako Maratoi Erdiaren 10 kilometroko proban. 35 minutu eta 42 segundo behar izan zituen Redondok, irabazleak baino minutu bat eta 36 segundo gehiago. Proba berean Aiako eta Orioko korrikalari asko izan ziren, Behobia Donostiarako dortsala lortzeko baliagarria baita lasterketa. Zegama-Aizkorri mendi maratoin, Nerea Amilibia 2. izan zen emakume beteranoen artean. Lasterketa hartan ere oriotar ugari izan zen, eta guztien artean Xabi Garate iritsi zen lehena helmugara.

Saskibaloia

Infantil mutilek finalerdietan kale

Maiatzaren 13an jokatu zuten Gipuzkoako partaidetza mailako finalerdia Orioko Ikastola-ZAST taldeko infantil mutilek. Pairean klub bereko talde zarautzitarra izan zuten eta ezin izan zuten irabazi. Dena dela, finalerdietaraino iritsi dira eta maila polita eman du taldeak. Iaztik aldaketa asko izan ditu Egoitz Dorronsorok zuzendutako taldeak eta emaitzarekin gustura daude. Bestetik, Orioko jokalariek batzuk Frantzian izango dira asteburuan, lagunarteko txapelketa batean.

BARAKA
 estilo berria
 Garrantzitsua
 170.000k
 Pizten lehorratuta
 Etxeak zuzen
 945 15 15 12
 Aitor

BERME Ahoikularitza S.L.
 Zerga eta lege aholkularitza
 KONTABILITASUN AHOIKULARITZA
 AHOIKULARITZA JURIDIKOA
 LAN BARRUTIAK
 ZERBIATUAK
 KONTABILITASUN AHOIKULARITZA
 Julia Mendizabal Zarautz
 m. 945 15 15 12
 Bide Nagia 114/12
 48910 BERRIOLO
 0945 15 15 12

Igo zaituz haize berrietara!
Galerria I
 943890416 677149934
 galerria.lorio@bormai.com

“Eskubaloiak gauza asko eman dit bizitzan; tartean, neskalaguna”

Mikel San Sebastian

Amenabar Zarautz taldeko jokalaria

1983 eta 1985 arteko belaunaldiak jokolari onak eman dizkio eskubaloitari Orion. Joseba Unanuek hasitako lanak Arratera bideratu zituen jokolari asko. Tartean, 1984an jaiotako Mikel San Sebastian. Orain, eskubaloian jokatzeari uztea erabaki du.

IKER GURRUTXAGA

Eskubaloi talde bat hamabost lagunetik gorako koadrila izaten da. Diotenez, Mikel San Sebastianen taldean zazpi jokolari uztekotan dira, tartean Mikel bera. Gaztea den arren, urte askotan aritu da jokatzeko: Orioko Herri Ikastolan lehen-dabizi, Arraten beranduago eta Zarautzen azkenean. Jaitsi aurreko maila berean taldea utzita bukatu nahi du kirol-ibilbidea jokalaria oriotarrak.

Urtegorabeheratsuak izan dituzue.

Jaitsi ginenean, belaunaldi aldaketa bat izan zen. Oso gazteak ginen; onak, baina gazteak. Esperientzia lortuz joan gara urtetik urtera. Gure maila erdiprofesional-profesionala da eta urtero diruarekin osatutako talde bat edo beste egoten da. Beti goian ibili gara, baina ez gara igo.

Iaz pare bat gol falta izan genituen mai-laz igotzeko. Aurten egin dugu eta pozik.

Taldean lau oriotar, tartean Josu Atorrasagasti. Zu izan al zara haren gidari?

Josu Atorrasagasti iaz hasi zen gurekin eta aurten 4 oriotar izan gara taldean. Postu berean jokatzeko Josuk eta biok, baina fisikoki eta teknikoki ni baino gehiago da. Nik esperientzia dut; hark baino gehiago, eta esperientziatik lagundu diot jokalaria bezala hazten. Sekulako gogoia du, baina denbora behar du ikasteko. Hala ere, datorren urtean Erasmus beka batekin doa kanpora uni-bertsitateko ikasketekin jarraitzeko.

Igoera, ohiturari jarraituz, zerbezarekin ospatuko zenuten, ezta?

Ez pentsa. Partidak eta gero zerbeza kaxa bat edanaz, joko komentatzeko ohitura dugu, egia da hori. Baina igande-

an, bi luzapen izan genituen eta leher eginda bukatu genuen.

Zurumurruek diote hau izan dela zure azken denboraldia?

Bai, hala da. Nik uste iritsi dela eskubaloian jokatzeari uzteko garaia. Neskala-gunak ere iaz utzi zuen eta nik 9 urterekin ekin nion jokatzeari. Kolpe asko jaso ditut. Nire lana zikina izaten da normalean, ez naiz golak sartzen dituen horietakoa. Defentsan egiten dut lana, baloia berreskuratu eta besteentzako bideak irekitzen. Une honetan ez dut eskubaloia ikusi nahi. Irailean izango da berriz ere gogo puntu hori, baina horri aurre egingo diot.

Galdutako kategoriara itzulita, ez du tentatzen?

Astelehenean bukatu genuen entrenatzeaz. Etxean neskala-gunak eta biok udako arropa armairura sartzen ari ginen eta negukoa gordetzen. Eta entrenatze-ko arropa tartean zegoen, jakina. Bota egin nuen. Neskak berak ere harritura galdetzen zidan: *Egitan, utzi egin behar duzu?* Egia da ez dudala guztia bota, baina ez banuen botatzen, aukera txikia beti hor geratuko zen eta ez zait komeni.

Beste oriotarrek zer diote?

Josu Atorrasagastik jarraituko omen du. Iñigo Morenok, oraingoan, badirudi utziko duela, sei urte darama hori esaten baina... Eta Joseba Olidenek utzi egingo ote duen diote, baina nik ez dut ikusten hura eskubaloia uzten oraindik.

Eskubaloian jokatzea utzi bai, baina erabat? Entrenatzaile lanetan edo ez al zaitugu ikusiko?

Une honetan ez zait burutik pasatzen halakorik. Kokoteraino bukatu dut eskubaloiaz, muga- mugaraino ibili garela. Ez dut ezetz esaten, eskubaloiak eman didan guztiagatik. Ikastolan eta asko ibili naiz, horregatik ez dut ate hori ixten.

Zarauzko klubean familia handi bat zaretela diozue.

Brometan esan izan dugun zer baita da, baina, azkenean, egia bihurtzen da. Ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin eta jokalaria talde izatetik lagun talde handi bat izatera pasa gara. Horiei esker eman nahi dizkiet, baina baita gurasoei emandako babesagatik ere. Eta zer esanik ez neskala-gunari, izan duen pazientziagatik. Eta beno, eskubaloitari berari ere bai, bestela ez bainuen neska ezagutuko!



Mikel San Sebastian jaurtiketa bat egiten, nahiz eta normalean defentsan aritzen den. IRURETAGOiena

Aiako ibilaldia sorburu izan zen Olaizola konpositorearentzat

Aiatik Altzolarara joaten bagara oinez, zer sentituko dugu, begiak, belarriak eta arima sentsazioak jasotzeko prest baditugu? Agian, sormena piztuta edukiz gero, Jose Olaizola konpositore eta organo-jotzaileak sentitu zuenak ere ukituko gaitu.

TESTUA: PAT COWIE

INFORMAZIOA: IMANOL OLAIZOLAREN JOSÉ DE OLAIZOLA, OROITZAPENAK LIBURUTIK

Aian egindako txango batean *Oleskari Zarra* opera liriko ospetsua sortzeko grina sentitu zuen Jose de Olaizolak (1883-1969). Garai hartan – opera idatziberrien saria jaso zuen 1916an Donostian eta 1918an estreinatu zen, publikoaren aurrean – kulturaren murgilduta zeuden lagun batzuk Aiara etortzeko ohitura zuten oporralditxoak pasatzera. Olaizolak berak kontatu zuen nola, udako oporraldi batean, txangoa antolatu zen Aiatik Altzolarara oinez joateko, menditik.

Aiako idazkaria zen Jose Garciak, Josefa Zinkunegi errezildarrak – Balmesen *Criterion* euskarara itzuli zuenak – eta Olaizola musikariak osatu zuten hirukoteak hiru ordu eman zuen bidean, eta esperientziak bihotzean ukitu zuen konpositorea: *Ikusitakoak nire espiritua hunkitu zuen eta eraman ninduen obra konposatzera. Mendi lerroen koloreek eta formek pixkana itxuratu zuten idatziko nuen figura musikala.*

Altzolan don Leandro Urretabizkaia-rekin hitz aspertuan ordubete pasa ondoren, bertako gaztak eta Nafarroako ardoak lagunduta, Aiara abiatu ziren berriro, eta txundituta gelditu zen Olaizola inguruaren edertasunarekin:

Ilunabar zoragarriak harrapatu gintuen, Santa Engraziako Angelusa entzuten zela. Poesia hutsa! Animaliak etxera bueltatzen ari ziren korrika; urruti, Donostia ikusten genuen, argitasun berezia zegoen... Horrek guztiak bultzatu ninduen nire obretatik intimoena idaztera: Oleskari Zarra. Hain eskarmentu zoragarria izan nuen leku berean kokatu nuen.

Olaizolak berak aitortuta, amarengan jaio zen nire musikarekiko grina. Han bilatu behar dira nik sortutako guztiaren sustraia. Ama bertsolari giroan bizi izandako zen, eta operan nabarmena da bertsogintzaren eragina: Pello oleskariak kantatzen duen guztia instrumen-



OLAIZOLA ETXEBERRIA ARTXIBOA

tuen laguntzarik gabe egiten du. Herriko bertsolari zaharrak, ordezkari bat bilatu nahi du: *Nere mendiyak, nere basoak, ibar, soro ta zelayak; oraindik ere abestu nai dik zuen oleskari zarrak*. Seme zaharrenak, Antton gaiztoak, aitik anaia battersitik bidaltzea lortzen du, baina, azkenean, Pellok maite duen iloba umezurtz maitagarriari esker, bigarrenaren semea bueltatzen da, esan gabe nor den. Jaun oso bihurtuko duen esperantza galduta, Anttonek familia osoari ikaragarriko mehatxuak botatzen dizkio eta, mendekua hartu nahi duen momentuan, Aizarnako *angelusa* ari da jotzen. Anttonek eginkizun gaiztoa bete du: battersiari su eman dio. Alde egiten du, baina amildu egiten da eta hil, barkamena eskatuz. Halere, operaren bukaeran, kantatutako hitzek esperantza eskaintzen dute: *Egiburu aita-etxia, aiten ogasun yatorria! Mendeetan iraun beza, jasoko degun berria.*

“Nere mendiyak, nere basoak, ibar, soro ta zelayak; oraindik ere abestu nahi dik zuen oleskari zarrak”

“Ikusitakoak nire espiritua hunkitu zuen eta eraman ninduen obra konposatzera. Mendi lerroen koloreek eta formek itxuratu zuten idatziko nuen figura musikala”

Konpositore eta organo-jotzailea, operaren inguruan kontakutakoa baino askoz ere gehiago zen, jakina, baina espazio mugatu honetan jakin dugu, behintzat, inguruan dugun paisaia sorburu izan zela Olaizolaren lan hartan: *Erlitjioarekin zer ikusirik ez duen idatzit dudana lanik atsegina da Oleskari Zarra*. Kontakizuna, euskaraz, zein musika sortu zituen, eta arrakasta handia izan zuen. Sortu zen garai hartan gorai patua izan zen opera, eta gerra zibilaren ostean erbestetik bueltatuta gero moldatu zuen berriro eta ondo hartuak izan ziren aldaketak.

Gaur egun ere 20. mendearen hasierako lan garrantzitsutzat jotzen da Olaizolaren opera hori.



220 laguntzako prestatuko dute bazkaria antolatzaileek. KARKARA

Mendi irteera eta paella jana izango dira Pagoeta eta koadrila egunean

Ekainaren 3an izango dira ospakizunak, baina bazkaritarako izena eman nahi dutenek maiatzaren 31 baino lehen deitu beharko dute Kultur Etxera.

Aspaldi zarautzarrek zuten ohiturarekin orain dela urte batzuk bat egin eta, aiarrak ere, ekaineko lehen igandean, Pagoeta eguna ospatzen hasi ziren. Aurtengo hitzordua ekainaren 3an izango da.

Aiako plazatik 09:30ean abiatuko dira aiarrak Pagoetara eta gailurrean zarautzarrekin egingo dute topo. 11:30ean meza izango da Pagoetako gurutzearen inguruan eta gero festa egingo dute txistularien eta trikitilarien doinuek girotuta. Mokadutxoak egiteko aukerarik ere ez da faltako.

Tontorrean hasitako festari, ordea, aiarrek herrian emango diete segida, izan ere, koadrilen egunean jai giroa izango da Aian.

Bazkaria

Koadrila giroan bazkaltzeko aukera izango da 14:00etan. Antolatzaileek lehenengo platererako paella prestatuko dute guztientzat eta parrillak, bazkarita-

rako tresnak eta edaria ere antolakuntzakoek jarriko dituzte. Hortik aurrera jan nahi dutena koadrila bakoitzak eraman beharko du eta sukalderako duten abilezia erakutsiz han prestatu. Bazkaritara joaten direnek hiruna euro ordainduko dute.

Gehienez 220 laguntzako tokia izango da eta herritarrek lehenetsuna izango dute. Beraz, izena emateko lehenbailehen deitzea komeni da. Hala ere, epea maiatzaren 31ra artekoa da eta animatzen direnek Kultur Etxera deitu beharko dute, 943 13 09 24 telefono zenbakira. Bestalde, antolatzaileek jakinarazi dute, mahaietan, izena emandako ordenan jarriko dela jendea eta egunean bertan esango zaiola koadrila bakoitzari zein toki dagokion.

Bazkaldu ondoren, koadrilen arteko jolasik ez da faltako eta lehia sanoan, baina nor baino nor arituko dira. Gero, eguna ere jai giroan amaitzeko, erromeria izango da.

LABUR

Hezkuntza

Gurasoentzako hitzaldia

Lardizabal Herri Ikastolako Guraso Elkartek hitzaldia antolatu du astearterako, maiatzaren 29rako. Kultur Etxean izango da 17:00etan eta Nerea Mendizabal psikopedagogo eta komunikazio adituak eguneroko gatazkak nola saihestu azalduko du. Hitzaldiak iraun bitartean zaintza zerbitzua izango da.

Kirolak

Idi-dema

Ekainaren 2an, ostiralarekin, idi-dema izango da Aiako probalekuan 22:00etan. Orioko Iñaki Olidenen idiak eta Hernaniko Iñaki Intxaurbururenak arituko dira lehian Kintopeko harriari tiraka. Itzain lana ere berek egingo dute. Bakoitzak 1.500 euro jarriko ditu jokoan.

Zarautz-Aia lasterketa

Aiako eta Zarauzko kirol elkarteek antolatuta, ekainaren 10ean jokatu da Zarautz-Aia herri krosa. 11:30ean Zarauzko Gipuzkoa kaletik abiatu eta Aiara arteko 11,315 kilometroak igo beharko dituzte korrika parte hartzaileek. Aldez aurretik izena eman daiteke herrikrossa.com helbidean 4 euro ordainduz edo, bestela, egunean bertan, irteera tokian, 10:00etatik 11:00etara bitartean, 10 euro ordainduta.

Aizkora

Gipuzkoako 2. mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatu zen Aiako frontoian joan zen igandean. Aizkolaria bakoitzak 54 ontzako bina enbor eta 60 ontzako beste bina moztu behar izan zituen. Unai Otaño izan zen lehenengo, bigarren, Mikel Larrañaga eta Jose Mari Telletxea hirugarren eta hiru horiek egingo dute txapelketan aurrera.

Irteera

Lardizabalekoak Lizarrara

Lardizabal eskolako 4 eta 5 urteko haurrak Oiartzungo Arritxulo aterpetxean izan dira eta 1., 2. eta 3. mailakoak Bertziko natur parkean. 4., 5. eta 6. mailakoak ekainaren 6tik 8ra bitartean Lizarrako kanpinera joango dira eta bi gau pasako dituzte han aisialdiko jarduerak egiten. Bestalde, ikasturte amaieran, ekainaren 22an, oporrak hartu aurretik Getariko hondartzara egingo dute irteera ikasle eta irakasle guztiek, urtero egin ohi duten bezala.

Nork joan nahi du apaiz?

Joan den martxoaren 15ean, autoan nindoala albiste hauxe entzun nuen Euskadi Irratian: Espainiako obispoen batzarrean, honako hau kaleratze-ko erabakia adostu zela: apaizen falta edo, apaiz eskasia dagoela eta, apaiz sar-tu nahi dutenez aukera edo gonbita.

Lanbide bezala ematen zuen aukera horrek. Jornala eta dena izendatuta, hilean, zazpiehun eurotik zortziehunera irabaziko zituztela. Lana egin beharko zutela, baina betirako lanpostu fijo-a, eta ondo bizitzeko aukera askorekin. Jakintzen mailarik ez zuen aipatu irratikoak. Ez dakit, *aitagurea* jakitea beharrezkoa izango den. Baina, lastima, nahiago nuke urte mordo bat gutxiago banitu, egin beharreko ikasketak egin, aurkeztuko

nintzen, edozein obispoengana.

Badakizue ze *txoiloa* den hori, krisi garai honetan? Makina batek eman behar du izena, nahiz eta fede askorik izan ez. Lehen ere, denak ez ziren fededunak izango eta!

Jantzia-eta ez dakit nola izango dituzten, elizaren kargu edo? Gure gain ez al dira izango, behintzat!

Bestalde, familia mantendu beharrik ere, ez dute, bada, izango? Gainerakoan, beste edozein gizaki bezala jantzi eta kallean ibiltzeko aukera badaukate gaur egungo apaizek. Ez garai batean bezala, sotana beltzarekin, urrutira ikusten zirela!

Don Antolin apaiza, taberna gustatzen zitzaion horietakoa izan behar zuen; inork gonbidatzen bazuen behin-

tzat! Beti hau leporatzen omen zioten ingurukoek:

– *Bai, auzo honetan ondoen bizi dena apaiza da. Meza eman, sermoi batzuk egin, eta liburu beltza irakurri eta kito.*

Hala erantzuten omen zien apaizak: – *Bai, egunen batean prestatuko diat sermoi bat, denak harrিতuta geratzeko modukoa. Ea orduan zer esaten dida-zuen.*

– *Ea bada, noizko dugu sermoi handi hori, don Antolin?*

– *Datorren igandean bertan, oraintxe nazkatu nauk zuen aitzakiekin eta!*

Jende guztia zain sermoia entzuteko, eta honela dio pulpitoetik:

– *Auzo honetan neronek daukat lanik txarra. Neuk sinesten ez dudana, zuei sinistarazten. Amen.*



Txokoak eta jendea Badator uda!

Gustura elkartzen ziren udako gau epeletan Mahastisoroko umeak afal ondoren, atari aurrean, gurasoek leihotik deitu arte etxeratze-ko esanez. Hor ditugu, zutik eta ezkerretik hasita Naroa, June, Julen Maialen, Itziar eta Maddi. Makurtuta daude Maren, Uxue eta Estitxu txikiak eta Aritz txofer lanetan, orain dela zazpi bat urte.



UMETAN IRABAZLE GERO PROFESIONAL

Hasi berria da umeen pilota txapelketa, larunbat eguerdietan ari dira Orioko gaztetxoak partiduak jokatzen. Finalak sanpedrotan izango dira eta aurtengo norgehiagokek bide luzea dute oraindik. Txapelketa bera ere, urtetan barrena, bide luzea egindakoa da.

Honako argazki hau da, hain zuzen ere, aspaldiko umeen pilota txapelketako sari-banaketakoa. Eugenio Aranburu izan zen txapel-dun eta nabarmendu zen pilotan ordutik ge-

rorra, erremontean, pilotari profesional izatera iritsi zen-eta. Orioko frontoitik atera diren pilotarietatik erremontekoek eman dute mailarik altuena.

Eugenio Aranburuk bere bidea ez ezik ondorengoena ere ireki zuen umeen pilota txapelketan: orain, bere semea Joseba ari da jokatzen. Eugenio bera txapelketa antolatzen eta hurrei pilotan irakasten ere ibili da.

[ARGAZKIA: J. AGIRRESAROBÉ. INFO.: I. ITURAIN]

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Carmen eta Txomin
ARRABEGIAN

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Gabon
TABERNA

Plater *karrikar* da *partxoak*

Tfnoa: 943.83.06.09

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskongia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



BENITTO

LERTXUNDI

“ERRETIRATUTA
ZER EGIN BEHAR
DUT, DOMINOAN
JOKATU?”



Hitzordura pixka bat atzeratu zen, baina adostutako garaia baino lehen, berandutu egin zitzaiola abisua eman zuen telefonoz. Elkarrizketa asko egun gutxian, **artistaren bizitzan egun oso nekagarriak ere izaten direlako**. Disko berriaz eta bere egunerokoaz aritu gara hizketan Benitorekin.

**TESTUA: IKER GURRUTXAGA
ARGAZKIAK: IBANEGIGUREN, ELKAR
ETA KARKARA**

Kafea eskatu eta Salatxo tabernako kanpoan eseri ginen. Grabagailua martxan jartzera nindoala, itxoiteko esan zidan. Kutxa txiki bat atera zuen patrikatik, zigarroak zituen bertan. Bat piztu zuen, eta harriduraz begiratu nion; *sei-zazpi egunean* esan zidan berak. Zigarroa piztu eta, *beno, nahi duanean* esanda jarraitu zuen.

41 urte 16 disko...

Ez, 47 urte kantagintzan eta 16 disko baino gehiago. Elkar disko-etxearekin bai, hau da hamaseigarrena.

Ez zara merkatuak ezarritako erritmoratsutu. Musika benetan mimitzen duen pertsona zarela esan al daiteke?

Baina batak bestea ekartzen du. Hor beti erabili den kontzeptua izan da: *hori komertziala da eta hori ez da komertziala*. Baina musika ona egitea interesatzen zaiona, beti izango da komertziala. Egia da nik ez dudala sekula izan bokaziorik edo tendentziarik merkatura begira bakarrik lan egiteko. Egiten dudan guztia, eta ez musikan bakarrik, nire barne hazkuntzarako garrantzitsua dela pentsatzen dut; interesak ez baititut batekin eta bestearekin, bizitzarekin baizik.

Disko honetan, beste behin, idazle onak zureganatu dituzu.

Alde horretatik esan dezadan, pixka bat

emanak etortzen zaizkidala testuak. Garbia da askok egiten dutela lana niretzat eta nik ere egiten dudala besteentzat. Denok egiten dugu guztiontzat.

Irail tristeia, zu joan zara Pako Aristiri ideia emanda, hari sortu zaio ideia... nola izan da?

Egun batez, Pako nire bila etorri zen, eta esan zioten han, Arriurtzian nengoela. Agurtu ninduen, baina han ginenak gurean segi genuen, arraunaz-eta hizketan. Pako, Urrestillakoa, harrituta geratu zen. Hango egoeraz eta erabiltzen genituen terminoez eta... Gerora, bere kasara etortzen hasi zen.

KARKARA hartu eta Pakoren testu bat ikusi nuen. Irakurri eta konturatu nintzen han egindako aurkikuntzaz ari zela.



Testuari eskua sartzeko baimena eskatu nion eta hark eman zidan. Arraunarekin lotuta dagoelako eta, gainera, Orioko itsasadarraren epika mundua, epopeia hori, eta zabalago nahi nuen utzi testua. Azkenean, itsasoan gertatutako zerbait modu lanbrotzuan kontatzea ere lortzen du. Baina kantuak oinarritik izan behar zuen tristezia hori, arraunlariak egiten ari ziren denboraldia kontuan hartuta. Eta tristura hori kutsakorra izan zedila, eta mundu guztiak esan zezala *zein kantu tristea*; eta uste dut lortu dudala.

Mikel Markezek ere kolaboratu du.

Estudioan ginelarik, bisita egitera agertu zen eta nik esan nion *laralarala* batzuk egiteko gurekin. Eta horrela izan zen.

Pako Aristirekin batera zuri buruzko liburu bat argitaratu du... zer aurkituko dugu?

Nik ez nekien, baina argitaratu da. Urte batzuk badira kafe bat hartuz hiruzpatalau ordu ematen genituela elkarrekin. Gero afariak egiten genituen, baina asko berandutzen ginen. Eta bazkariak egitera pasa ginen, hilean behin; batzuetan Aian, beste batzuetan Urrestilan, hurrena Orion... Hasieran solasaldiak egiten genituen eta haiantzat aberasgarriak ziren nonbait, eta grabatzen hasi ginen. Mundua konpondu genuen 17.000 aldiz eta sekulako harrobia osatu genuen.

Egiterakoan, galdera-erantzun formularekin hasi ginen; eta liburu batek dituen tasunetarako ez zitzaidan gustatzen. Saiakera moduko zerbait behar zuen izan liburu hark. Haien hausnarkeak egin zitzaizela, esan nien, ni hizketan ari nintzen bitartean, eta hura idatzi; tartean nirekin solasean ari zirela aipatuz-edo. Saiatu ziren berriz ere hala egiten eta nik bukaeran orraztu egin dut.

Herriar bat ere sartu duzu musika taldean, Intza Unanue. Benito Lertxundi- ren irudirako, apustu indartsua ezta?

Benito, oso hurbileko neskatua da. Olatz beti ikastola inguruan ibili da koruarekin-eta, eta Intza solista aritzen zen. Nire kantuek koruak behar zituztela



“Kantuak oinarritik izan behar zuen tristezia hori, arraunlariak egiten ari ziren denboraldia kontuan hartuta. Eta tristura hori kutsakorra izan zedila eta mundu guztiak esan zezala *zein kantu tristea*”

“Alaba jaio zeneko kantuak jotzea eta alaba parean izateak ere sortu zituen hunkitzeko momentuak. Ez zaizkit gehiegi gustatzen, baina batzuetan nahikoa mukitsua nahiz eta...”

“Niretzako omenaldirik onenak nire medio naturalean, kontzertuetan, jasotzen ditudanak dira. Kantua jo eta txaloak jaso; eta badakit, gainera, hunkidurak sortzen direla”

“Ez diot geroari begiratzen eta ez dut etorkizuna programatzen. Noiz uzten diogu arnasa hartzeari? Ahalmenik ez dugunean. Noiz utziko diogu kantatzeari? Ahalmenik ez dugunean”

ohartu nintzen. Diskorako ez zen arazo, Olatzek egin ahal zituen guztiak; baina zuzenekoan ere behar nituen.

Proposamena egin genion eta probatu egin genuen. Berak baditu kantatzeko joera batzuk, batzuetan oso *poperoak* direnak; eta esan genion ahotsa heltzen joan behar zuela, grabaeak lantzen eta abar. Erantzun ona izan zen, eta hor dabil gurekin kontzertuak egiten. Intzarentzat ona delakoan gaude, jende askoren aurrean aritzeak asko lagunduko diola uste dugu salto kualitatibo hori emateko.

Zuzenekoaz ari garela, nolakoa izaten da kontzertu baten eguna?

Nahiko goiztiarra naiz. Lehen ordutik eutsi nahi izaten diot kontzertuari. 17-18 lagun mugitzen gara kontzertuetan eta



beti sortzen dira halako gorabeherak.

Lehendabizi lo ondo egitea gustatzen zait, oso garrantzitsua delako. Kontzertua baino bospasei ordu lehenago joaten naiz tokira, eta nire proba denak egiten ditut. Gero, musikariak etorri zain egoten naiz, eta haiek probatzen joaten dira. Gero, denok batera, lehendabizi barrutik eta kanpotik gero, nola entzuten den jakiteko eta guztia puntuan jartzeko. Atzetik zerbait pikatzen dugu, gero kontzertua eta amaitutakoan etxera.

Orioko azken kontzertuan, momentu batzuetan hunkituta ikusi zintugun. Zerk sortu zizun hunkidura hura?

Herriarekin oso errotuta nago. Orio niretzat familia handi bat da, denok ezagutzen dugu elkar, denok dakigu elkarren berri. Etxean, familiarekin aritzea bezala iruditzen zitzaidan. Alaba jaio zeneko kantuak jotzea eta alaba parean izateak ere sortu zituen halako momentuak. Ez zaizkit gehiegi gustatzen, baina batzuetan nahikoa mukitsua nahiz eta...

Kontzertura sartzeko momentuan-eta, talde itxura ematen duzue. Benetan talde sendoa zaretenaren irudia. Erritorik edo izaten duzue?

Gure taldearekin hori ezinezkoa da. Oso bateratua ematen al dugu? Bada, talde nahiko anarkoa dut. Bakoitza bere alde-tik ibiltzeko joera dugunak gara.

Asko entseatzeko al duzue?

Batere ez. Entseatzea oso zaila bihurtu delako. Guztiok elkartzea oso zaila da, asko gara. Etxean juntatzen gara. Batzuetan bat edo bi entseatzeko, hurrena beste bat... Horrela ibiltzen gara.

Argi eta garbi dago musikarentzat bizi zarela.

Hori da ni hemen egoteko modua. Horretara ohitu naiz. Askatasunez, inon fixatu beharrik gabe... hori baino gauza bizkorragorik zer bilatuko dut?

Baina teknologia berriekin ere moldatu beharko da horretarako.

Ni analfabeto teknologiko bat naiz. Ez dakit ordenagailua pizten. Lanean aritu naiz harekin, baina grabazioan eta hala-koetan, besterik ez. Eta beti Olatzen laguntzarekin, noski. Gainera, badakit ni-



retzat oso jostailu arriskutsua dela; eskaparate horrek hartuko banindu, haren esklabo bihurtuko nintzateke. Hor sartuko banintz, nire hegaldiak mugatuko ziren eta hori ezta naturala.

Jaso zenuen Nabarralde saria ere.

Saria hartzeak duen parafernalia hori ez zait gustatzen. Ez naiz eroso sentitzen eta paperak galtzen ditut. Nahiago izaten ditut ez hartu, eta orduan ere nahia-
go nuen. Baina behar den ganora ere falta zait tinko-tinko ezezkoa emateko. Egia esan, bestela ere nahikoa omendua sentitzen naiz. Niretzako omenaldirik onenak nire medio naturalean, kontzertuetan, jasotzen ditudanak dira. Kantua jo eta txaloak jaso; eta badakit, gainera, hunkidurak sortzen direla une horietan. Eta hori baino fereka sendoagorik ez dago niretzat.

Gartxot filma ere garai hartakoa da. Horrek ere ez omen zizun grazia gehiegirik egin, ezta?

Kriterio estetikoak erabili nituen ezezkoa emateko. Gartxot nik egitea proposatu zidaten eta kolpera ohartu nintzen nik ezin nuela izan. XXI. mendeko kantari batek ezin zuen IX. mendeko artzai basati baten paperean jarri. Eta ibili nintzen asmatu ezinik nork egin zezakeen halakoaren ahotsa.

Egun batez, ETB ikusten ari nintzela, ikusi nuen bat txoriaren imitazioak egiten zituena. Oso politak ziren. Gartxot ikusten nuen txoriekin eta ardiekin hizketan. Telefonoa hartu eta zuzendariei esan nien nori agindu lana, eta emaitza izugarri polita da. Denen mesederako izan zen nik ukatzea eta Mixel Etxeko-
parek egitea.

Erritmo altuko hilabeteak izaten ari dira. Nekatu ere egingo zara.

Neke psikologikoa da orokorrean. Munduak, orokorrean hartuta, gehiegi hitz egiten du. Isilik egon beharko genuke askoz ere gehiago, ariketa sanoagoa litzateke. Baina, kolpera, medio guztiekin egon behar duzu, eta gauza beretsuak esaten dituzu egun horietan. Psikologikoki sortzen du halako nekea. Nik freskuran egoteko gogo ikaragarria dut.

Nolakoa izaten da Benito Lertxundiren asteko egun bat?

Mentalki oso aktiboa naiz, baina bestela oso erregularra. Gustatzen zait lo egitea. Naturak eman digun ezinbesteko aukera da loa; gauero egiten dugun bidaia inizatikoa. Ohera joan eta kontzientzia galtzen dugu, zergatik horren beharra? Bada, ordena bat jarri behar dugulako bizitzan. Zortzi-bederatzi ordu egiten dut lo.

Jaiki eta patxada ederrean gosaltzen dut, prentsa gainbegiraturaz. Ekilibrioa lortze aldera ere, ahal dudan bakoitzean arrabolan jarri eta ordubetez aritzen naiz. Udan kalean ibiliko naiz, baina ero fama ere jarri zidaten bizikletarekin euripean irteten nintzelako. Onura da niretzat eguneroko ordubete saio hori.

Atzetik bazkaldu eta konpromisoei erantzuten diet. Atzetik kafetxo bat hartzera jaisten naiz; behin pixka bat egon eta gero, berriro lanera igotzen naiz. Modu bateko edo beste lanak egitera. Entseatu egunero egiten dut, ariketa hori ere behar delako. Gero afaldu eta atzetik zertxobait ikusi edo irakurtzen dut, berriro lotara joan aurretik.

Lantxoak esan duzula, zutabegile izateko eskaintzak ere izango zenituen.

Bai, baina naturalezaz alferra naiz; eta ez naiz lotsatzen. Solasean orduak eta orduak eman ditzaket, norbait bizia ikusten dudalako nire aurrean. Baina paper edo pantaila baten aurrean jarri eta hari gauzak kontatzea, hain artifiziala iruditzen zait... Niretzako inspirazio iturria izan den gizon batek, XX. mendeko buda bat iruditzen zaidanak, auskalo zenbat liburu dituen kalean, eta lerro bat bera ere idatzi gabe. Jiddu Krishnamurti zen bera. Oso ondo konprenitzen dut, ez dut imaginatzen hura idazten. Nik gauzak prozedentea denean edo komeni denean esaten ditut, bestela, isilik egoteko daukat gogo.

Erabiltzen duzun materiala hautatzen, kapritxosoa al zara?

Beni, mota guztietako mikrofono eta instrumentuak probatu ditut. Beti saiatu behar delako zer bait duina egiten. Gi-

tarrak ere asko erabili ditut. Azkenaldian kaxa gutxiko gitarra nahi nuen, zuzenean erabiltzeko batez ere. Baina lortzeko ez da erraza, eta berdin du ni bezalako gitarra jotzaile txar batentzat ona ala txarra izan; nik eroso jotzea bilatzen dut. Pentsa, hor badago Alemanian instrumentuak saltzen dituen etxe famatu bat. Hor ibili nintzen prezio eta markei begiratu gabe kaxa estuko gitarra baten bila. Aukeratu nuenak huskeria bat balio zuen, eta etxera ekarri nuen. Egia da soinu aldetik eskasa dela, pixka bat lata soinu duela, baina bestela harekin joango nintzen kontzertuetara.

Alaba ere piano jotzaile iaioa duzu.

Iaioagoa litzateke gehiago jorratuko balu.

Arraunlaria ere bai, eta ez txarra. Alabaren zein aurpegi gustatzen zaio gehiago aitari?

Nik ez dut bultza arraunlari izatera. Hori berak ekarri du eta jendeak jakin dezala! Badirudi, gainera, han disfrutatzen duela gehien. Arraunean bezain beste saiatuko balitz pianoarekin, joko luke, bai, gehiago! Pianoa uzteko tan askotan ikusi dut alaba, eta nik esan izan diot pena emango lidakeela. Jotzen ari dela dantzari ariko bazen bezala ikusten dut eta barnean daramala azpimarratzen diot. Biak gustatzen zaizkit niri, arrauna oso sanoa delako, baina denbora baterako izaten da. Musikan jarraitzea ere gustura hartuko nuke, alabarentzat izango baita onurarik handiena.

Ez dakit Orioko musika-panorama jarraitzen duzun edo. Nola ikusten duzu?

Guk ez genuen halakorik izan. Ez genuen eliza baino musika eskola hoberik. Han kantatzen genuen. Orain aukera gehiago dituzte, edozein tresna ikasteko irakasleak eta... Gero musikarako *mobi-da* badagoela ere ikusten dut.

Orain dela hilabete gutxi harrituta geratu nintzen. Olatzi, emazteari, hementzen talde bateko –Giranice– diskoa eman zion talde hartako kide batek. Afalondo batean jarri genuen eta harrituta geratu nintzen. Deitu nion batera-jotzaileari, hark eman baitzion diskoa, eta esan nion: *ez nuen halako mailako diskorik espero*. Oso disko polita da, ez da beti ildo beretik doan diskoa. Joan-etorriak dituen diskoa da, halako bidaia bat eginarazten duena. Pozgarria da herrian halako taldeak ditugula jakitea.

Erretiroa gerturatzen ari al da?

Ez diot geroari begiratzen eta ez dut etorkizuna programatzen. Noiz uzten diogu arnasa hartzeari? Ahalmenik ez dugunean. Noiz utziko diogu kantatzeari? Ahalmenik ez dugunean. Erretiroa hartuta zer egin behar dut, dominoan jotkatu?

Kexati

Kada hilabete mordoska nire aurreko enpresako lagunekin elkartu ez naizela. Gogo ikaragarriarekin hurbildu naiz Donostiara astearte buzurrian. Afari pasada ederra egin dugu elkarrekin. Gainera, bagenuen zer ospatua, gure artean falta diren Jairo eta Esti guraso izan baitira bart gauetz. Bide batez, zorionak laukote!

Hitz eta pitz, tertulia gozoan egon gara mahaiaren jira-bueltan. Gezurra dirudi egunero ikustetik ia inoiz ez ikustera pasatu garea. Aspaldiko kontuak errepikatatu dizkiogu elkarri barre algara artean. Bai baitaude inoiz kadukatzen ez diren istorioak. Baina gure ahotan gai potolo bat nagusitu da. Bakoitzak gaur egun duen lan egoera krudela. Kexa zerranda bana osatu dugu 3 ordu pasatxotan: ordutegi aldrebesak direla, lanaldi amaigabeak, zuzendari txatxuaren txepelkeria eta epelkeriak, soldata eskasak...

Gaueko hamabiak jotzear agurtu ditut lagunak. Biharko 7etan izango da begi-

zuloetan horren seinalerik. Erdi presaka sartu naiz kotxera eta irratia piztu dut segidan. Hor azaldu zait gure andoaindar melosoa bere betiko mantra errezi-tatuz. Hark eta beste tertuliakideek zorientasuna dute hizketagai. Hitz potoloa, gero, krisi garai honetarako. Hitzetik hortzera darabilte bizitzak eskaintzen digun guztiaz poztu egin behar dugula eta beste hiru-zupalau estereotipo.

Purrustada bat egin diot altabozari lehenengo. Baina autopis-tako 7 minutu eskas nahikoa izan di-

Anez gogoratu naiz gero, Zumarragako Legazpi dorretxearen parean eta esku banatan kruasan bat eta lau txokolate ontza zituelarik esan zidanaz orain sei egun

tut burura gurasoen zilar-ezteien akordua ekartzeko. Amaren aitajaunak nola kantatu zizkigun euskaldun-fededun saileko kantu guztiak. Ez da lurrean gizakirik, printzerik ez erregerik, ni baino hobeki denik. Badut laguna, badut kuadrila, badut familia ere nik. Osasun ona batetik, ondasun nahiko bestetik...

Zer gehiago behar dut nik?

Eta ni atzetik, penaturik. Aspaldiko lagun minekin pasatako minutu eskasak kexatzeko baka-rrik erabiltzea ere!

Anez gogoratu naiz ondoren, Zumarragako Legazpi dorretxearen parean eta esku banatan kruasan bat eta lau txokolate ontza zituelarik esan zidanaz orain sei egun. Musika eskolako ikasleok bertan eman genuen kontzertuaren ondoren meriendaz mutur zikinduta zela hauxe esan zidan: *Mundu guztia kejtutealako kejtze naiz nire. Garbiñe, kejtzeaz modan dao!*

Hara bada, behingoagatik demode egon nahiko nuke.



GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHO-KOMUNIKAZIOA - ASESORIALAN

Ibai Ordo, 1
Tel: 943 834 488 - Fax: 943 132 941

Goizeko
KAFFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33 barnea - ORIO
Autobus parada ondoan

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel: 943 52 42 25 - Fax: 943 83 54 98 - itsasadarra@itsasadarra.com
Ita Ordo 4, behea, 30310 Ordo

LUXARBE
LUXARBE

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

Oreka energetikoa
Bachen loreak

batzarak, iratigabea, sineta
akatsak antolatzen dituzte

utzi alde batera
emozio negatiboak

Itziar Lertxundi
Tel: 943 83 31 03

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE NALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 44

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

943 83 09 84

aita lertxundi, 36
ORIO

Barraren beste aldetik

Bbi aste edo, hegoaizerik ez eta tabernan zegoen *pesta* ulertu ezinik nabilela internetera jo nuen. Ilargi berria tokatzen zen. Zerbait bai: ilargi berria, alajaina! Moila bazterreko lagunak ez zidan sinetsi lehenengoan; laster egin zidan keinu, arrazoi eman ez... beti zerbeza esaten duen bezeroak ere, gau hartan J&B eskatu zidan. Izotzarekin, tubo basoan, eta mesedez.

Hutsa. Askok diote psikologiako aditu titulua eskuratzeko nahikoa dela uda bat bertan pasatzea. Penak entzuteko leku ezin hobea da. Askok ligatzen omen da. Ezagutzen da jendea; tamalez, bat ast@keriatara ohitzen da. Eta barkatuko didazue, oriotar mozkorrok, baina aiarrak ez dira bakarrak... Ikasi eta ikusi, behintzat, egiten da. Ikusi, entzun, eta isildu! Hori omen da ofizioaren urrezko legea.

Ebakia. Barraren beste aldeaz ari naiz. Han egoten garenoz; tabernara sartu eta askori higiezinaren parte dela uste duten langileoz... Kilimak eskertzen dira; baina neurrian. Ondo pasatzera atera-edo? - eta trago bakoitzeko botaka egiten dizun bezero horrenak, ba al du azalpenik? Bihotzeko futbol taldeak iluntzeko partida galdu duelako izango da; gaixoa...

Alkoholik gabea. Gaueko oihana. Mozkorren nahasian, tabernako higiezinekin? -postea, mahaiak, tabureteak- jolas erotikorik izan duenik bada herrian. Heterosexualak ote? Abestitik abestira bost abesti eskatzen dituztenei mp3ak oparituko nizkieke gustura, muturrekoak -bozalak- oparitzen ez hastearren. Hala ere, parrandan ordu txikiak gerturatzaren ari direnean, automatikoki barrara gerturatzaren direnen espeziea da gehien txunditzen nauena. Mimoak nahi eta barran eskatu behar! Ah! Eta gorroto dudan espezimena: barrari kolpe kolpeka hasten direnak? Barkatu, inork ba al du horren azalpen logikorik? Hala bada, etorri tabernara: tragoa nire kontu.

Infusioak. Infusioak modan daude. Eta ezer hartu nahi ez dutenen ur botilak edateko gaitasun ahaltsua ikaragarria da. *Hotza edo naturala?* Alperrik!

Zuku eta irabiatuak. Zenbat aldiz egin zaie barre emakumezkoei, beste gauza batzuen artean, komunera launaka sartzen direla eta... Barkatuko didazue, baina komuneko sartu-irteerei erreparatu gero, trans gehiegi dabil bueltaka...

Baxoerdia, gaseosarekin/gabe. *Eramateko* da baxoerditan ibiltzen direnen elkarrizketarik maiteena. Elkarrizketa, txistea edo aitzakia den oraindik ez dut argi. Eta edalontziak zuloa zuela esan duenarena, zuek erabaki zer den. Aitzakia, txistea, elkarrizketa. Gaseosa, jakina.

Txupitokak. Errespetua diet txupitoei; txupito grinari, beldurra. Eta laster datoz sanpedroetako hormona pizgarri kapsulak. Ia aurtengo trend txupitokak zein kolore duten. Sekula ez dut ulertuko ordaindu nahi ez duten txupitozaleen estrategia klasiko ortodoxoa: *Bi txupito, eta zuk beste bat... jarri hiru!*

Hirugarrena hartutakoa naiz; gauaren eta gonbitaren arabera. Jakin, ordea, hartu eta hiru kobratutakoa ere banaizela... Eta inor ez zait kezatu, hara!

Solysombra. Sarri, ilargiarekin izaten du lotura. Gauak aurrera egin ahala, Fraiangelico botilatzen hartu zaituen Gomendio bat: zerbitzariarekin ligatzekotan, kontuan hartu zu joan eta oraindik ere taberna itxi arte ordu pare bat pasako dituela lanean... Beroaldiak ordura arte iraungo dizula uste baduzu, ongi: saiatu horretan. Baina pentsatu bi aldiz; askotan zain egoteak ez duelako merezi...

Konbinatuak kopoiatan. Dotore. Kinto bazkari eta afaritako zerak, ez dut hitzik aurkitzen, jo eta lo uzten naute. Denetik dago, onak -eskuminak 69koei!- eta ez hain onak... Gazte sentitzen diren gaur egungo gazte hauekin ez dago zer eginik! Gure garaian...

Bote! Poltsikoak estututa gabilza aspal-dian. Orain, lehen baino bote gutxiago izaten dugu! Baina, lasai; ez orain, ezta lehen ere bo-tearekin ez gara aberasten eta! Nik aukeran nahiago zuen begirada gurutzatuak, konpartitutako keinu konplizeak, iraultza utopikoaren hitz aspertuak... -*Eskerrik asko. -Zuri.*

Wikipediako jakitunei

Azken hilabeteen asko gerturatu naiz, hala-beharrez, Kultur Etxean izan diren ekitaldietara. Orokorrean, zein baino zein interesgarriagoa. Nahiz eta hasieran hala izango zirenaren itxurarik ez izan.

Tamalez, guztietan jende gutxi. Eta hori, ekitaldi guztiak debaldekoak zirela. Behin batek esan zidan, ordaindutako ekitaldiek, ordainduta izateagatik bakarrik, jende gehiago erakartzen zutela. Bada, zalantza daukat eta hori hala ote den pentsatzen jarritu nago.

Alos Quartet, Oiana Blanco eta Edorta de Antaren ma-haingurua -belarririk tirako diet datorren kiroleko aholku batzordean nire ma-haikide direnei-, atez atekoaren gaineko hitzaldia, Nafarroaren historiari buruzkoak...

Azken bi hauekin zentratuko naiz. Atez atekoaz kezak izan ari garen honetan, hitzaldia ez zen jende asko gerturatu. Beraz, non dago arazoa eta jendeak salatzen duen informazio falta?

Nafarroaren historiari buruzkoetan berdin. Herri honen identitatea ulertzeko baliagarriak izan dira hitzaldiok. Baina non daude iritzi politikoak tabernan ematen dituzten politologoak?

Berriz ere izango gara, asko dakigulakoan, Wikipediako jakitunak...

"JUAN LARRAZPU" ERAIKUNTZAK, S.L.

• Baserrietako igeltseritza eta egurrezko esturturetan adituak

• Etxeen berrikuntzak:

- fatxadak
- telatuak
- sukaldeak
- bainu gelak...

Tf: 665 718 966 (Jon Arruli)

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Pabilioa Agor. Indusiarria Agor. 5. 20010 Zizurkil	Gaiterria San Bartolome, 1. 20000 Zamatz	Gaiterria Aita Lortzand, 21. 20010 Oñe Tel. 941 89 49 16
---	--	---



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@cejaerwa.com
BORIO ORIO

- ATEAK IRABITZEN DITUEN
- SARRAILA ZILINDRO ALDARAK
- ATEAK IXTEKO MALDURRI ALDARAK
- KOMUNITATEREBTZAKO ZERBITZUA

iñaki argazkiak caperochipi

ezkontzeko asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

Joana Murgiondo
Asegurari-argazkiak

ASEGIURUA

CASA, GILVET, LARRE Y CIA. S.L.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: +943.572083
FAX: +943.571190
Lazanja@hotmail.es

INES ASEÑO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO



TAILER MEKANIKOA MANTEROLA S/L

INDUSTRIAL BAIKOJAY

Santiago Ouzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

ABOR R

ISO 9000

Esteraiko balbula
AENOR kalitate ziurtaginduna

Orioko Ogi



ORIOGI

EPIL OKINDEGIA
Frontal ondoan
Tfnoa: 943 83 01 89

Joana Murgiondo
Asegurari-argazkiak

ASEGIURUA

CASA, GILVET, LARRE Y CIA. S.L.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07



943 83 09 86



KOASTA

Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aperta...



Sagasti LEIHOAK

ORBERTO SAGASTI

T / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
rrantzele kalea, 65
0810 Orio (Gipuzkoa)

RAMIRO argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

KOLON TXIKI

Herriko Enparuseta, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

TANATORIO ZARAUZ

EUBOENKARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

FISOTERAPIA - Gerardo Arriola eta Natalia Wierszewski
FIZIOTERAPIA - Gerardo Arriola



sinergia investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

Lizaso
dekorazioa



Eusko Godam, 10
Tf. 943 83 03 84

- * Denstia eta probintziako ospitaleak
- * Aldeko zerbitzu
- * Belorio galek
- * Koroiak, eskelek, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 80 40 00 / Fax: 943 80 40 41
email: harragiti@sectospil.net

Sukalde eta bainuen erreformak



XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Inkesta

Herriko Plaza itxita

Asteburu eta jai egunetan Herriko Plaza ibilgailuentzat itxi eta oinezkoentzat bakarrik izango da. Herritar, tabernari eta udaltzainei, **zer iruditu zaie Herriko Plaza ixtea?**

“Asteburuetan plaza itxita, herriak asko irabazten du”

Ni plaza ixtearen aldekoa naiz, eta uste dut herriak asko irabazten duela horrekin. Orain dela bi asteburu, Oriora etorri nintzen igandez bisitatu eta artisau azoka zegoen eta giro

zoragarria, hori plaza itxi gabe ezinezkoa da. Festetan edo asteburuetan ekitaldiren bat dagoenean, bai; baina bestela ere bai, txikiteoan, umeekin jolasean... ibiltzeko. Gainera, herrian, estalita dagoen toki bakarrenetakoa da plaza.

Beti ere, autoak Txankatik joaten badira, jakina. Aspaldi ez naiz autoan Goiko Kaletik joan, baina irakurri izan dut ez dagoela autoentzat prestatuta. Beraz, autoak handik bidaltzekotan aurretik egokitu eta gero bideratu. Herritarra,

beharbada, trukoa dakielako-eta, ez da Txankatik joaten Goiko Kaletik baizik eta, agian, ni ere noiz edo noiz joango naiz handik, baina badakit gaizki egingo dudala.

Dena dela, ordutegian moldaketa txiki bat egingo nuke. Larunbat goizean itxi beharrean, eguerdian itxi, dende eta tabernekin zama lanak egiteko.

Nora Makazaga

Kanpoan bizi den oriotarra

“Seguruagoa da autoen norabidea beti bera izatea”

Iabi hilabete pasa dira, Udalak erabaki hori hartu zuenetik: larunbat, igande eta jai egunetan, plazako bideak autoentzat ixtea, oinezkoak eta bizikleta zaleak lasaiaigo ibiltzeko.

Erabaki guztiak bezala, horrek ere alde onak eta txarrak baditu. Baina, denbora honetan, bi alde txar hauek ikusi dizkiot oinezkoentzat:

Plazako bidea itxita dagoenean, handik pasatzean, pentsatzen dut: *Gaur zer egun da? Bidea itxita ala irekita dago? Itxita egon beharko luke, baina gogoratu ote dira ondo ixteaz? Itxita dago, baina bizikletaren bat pasa daiteke eta ondo begiratu beharko dut.* Beraz, nahiago izaten dut, badaezpada, espaloitik ibili.

Haurrak ere galduta ikusten ditut. Norabidea aldatuta duen bidea pasatzeko, gehienek betiko aldera bakarrik begiratzen. Ondorioz, sustoak izan dira.

Arriskutsua da egun batzuetan autoak alde batetik etortzea eta besteetan bestetik. Herritarrok seguruago sentituko ginateke autoen norabidea egunero bera balitz.

Miren Arbil Itxaso

Oriotarra

“Plazari bizia ematea herriari bizia ematea da”

Orain arte ez da apenas eguzkirik izan asteburuetan, alderantziz, gehienetan euria egin du. Beraz, aldaketak izan duen eragina ezin izan dugu frogatu.

Hala ere, niri neurria egokia iruditzen zait, izan ere, plazari bizia ematea herriari bizia ematea da. Eguraldi ona izan arte eta jendea lasai ibili arte ezin da ondorioz atera, baina jendeak lasaiaigo ibiltzeko aukera izango du, beraz, bai gutretzat eta baita jendearentzat ona izango dela uste dut.

Tabernariok, uda partean batez ere, aldea sumatuko dugula iruditzen zait. Jendeak lasai ibiltzeko aukera baldin badauka inguru polita sortuko da.

Autoak arriskutsuak dira jende asko dabilenean, batik batik umeak tartean daudenean eta korrika bidera ateratzen direnean.

Auto gidarien aldetik entzun ditut, hain zuzen ere, entzun ditudan kezak. Goiko Kaletik joan behar diren horrekin ez daude batere konforme, ezerosoa dela esaten dute.

Patxi Romo

Plazako tabernaria

“Hurrengo Goiko Kale ixtea izan beharko da”

Udaltzainoi neurri gogorregia iruditzen zaigu. Oinezkoentzako oso ona, baina alde zaharra autoz kargatzen da. Lehen moilatik ateratzen zirenak eta plazan oinez ibili ondoren

autoa hartzen dutenak, herritarrak dira Goiko Kaletik ibiltzen direnak. Beraz, hurrengo neurria hura ixtea izan beharko da, neurri gogorak hartzen ez badira ez baitira betetzen. Arauak dio autoak Txankatik barrena joan behar dutela herritik ateratzeko, baina ez da errespetatzen eta hori oriotarrak egiten dute, haiek baitakizkrite herri barruko zirrikituak.


Hau herri txiki bat da eta ni lanean ari naizen 30 urteetan ez dut Herriko Pla-

zan oinezkoa harrapatzen edo bizikleta jotzen ikusi. Beste tarteren batean izan da istripurik, baina horretan ez.

Goiko Kalen bizi den jendea iragiten diete autoek traba eta hainbat keza jaso ditugu handik. Plazako botikan goardian direnean ere sumatu dute, eta baita hainbat saltzailek ere, larunbat goizetan jende gutxiago dabilela.

Joxe Carrera

Udaltzainburua



Cant explain-ek lehen lana du Army-Armak deiturikoa. CANT EXPLAIN

Denok zerbait gehiago merezi genuen

Kritika Cant Explain

Musika. 'Army-Armak' diskoa. 2012an Andoaino Garate estudioetan Martxel Arkarazo teknikariarekin grabatuta.

H *!Bajatuzak soinu ho!* dio amak. Baina musika eta bereziki rocka, ozen entzun behar dira. Garagardo beroa txarra izaten den moduan, musikak, baju, asko galitzen du, guztia ez esatearren.

Denbora asko nengoen zain disko hau eskuetan izateko; bazuten garaia lokaleko itzaletan luze eman duten abesti horiek argia ikusteko. Denok merezi genuen.

Euskara eta rock-a, BTX edo ska-punkpatatero berbereroa? Euskadi gazteako *ño-ñadak?* Bada, ez! Disko hone tan ez duzu *mainstream*-eko plastikozko abesti prefabrikaturik entzungo, *Cant Explaine* nek euskarazko rockari originalitatea eta freskotasuna ematen dio, haize berri pixka bat. Gehiegi ikusten ez diren talde horietako bat da, eta disko hau ere halaxe da, gehiegi ikusten ez den horietakoa.

Halaere, Mikelek hirugarren kantuan dioen bezala: *Badakit zu gabe bizitzen*, hau da, ez dut uste disko hau musikaren historia orrietara pasako denik, ez du nire apalean

toki pribilegiaturik izango, behintzat; baina beste baten aurreaurkezpena izatea espero dut.

Hurrengo baten esperoan, hurrengo baten irrikitan utzi naute. Lehen disko hau nahikoa izango ez balitz bezala; Cant Explain egarriz. Agian talde hau noraino heldu daitekeen badakidalako.

Baina bitartean, diskoari izena ematen dio (Army-Armak) bezalako kantez gozatuko dut: *Oi pieza!*

[EÑAUT MARTÍ]

Ikasleak idazle
Alaitz Miera

Plaza itxita asteburuetan

O rain dela aste batzuk plaza eta Il Gelato artean, autoen pasara mozteko erabakia hartu zen. Baina hori larunbat arratsalde, igande eta jai egunetan bakarrik izango da. Izan ere, egun horietan dendak itxita egoten dira eta ez dago beharrik astean zehar bezala. Ondorioz, autoek moilako errepidetik pasa beharko dute Gelato albokoa oinezkoentzat utziz.

Baina zein da erabakiaren helburua? Erabakiaren helburua honakoa dela esan genezake: betidanik



egon izan dira espaloiairen ke-xak; txikia dela, ezin daitekeela haur kotxeekin

lasai pasatu... Horen konponbidetzat har genezake erabakia. Horrela plaza inguruan jendea lasai ibili daiteke, batez ere jende heldua eta haurrak. Niri irtenbide paregabea iruditzen zait, izan ere, lehen aipatu bezala espaloiairen arazoa zertxobait hobetzen du. Egia da asteburuetan bakarrik izango duela soluzioa, baina, azken finean jendea jai egunetan ibiltzen da plaza inguruan bai umeekin eta baita koadrilak taberna batetik bestera ere.

PERTSIANAK
AKO MAIZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel: 943 13 29 04 Mujikoma 600 70 52 27

MIRANDA
Gelma eta leño, eskalera...
besta linea autozkoak
egiturazkoak
Tel: 943 13 29 04 ZARAUZ

SOLOZABAL
autoeskola
Eusko Gudari, 30-1, ezk
telefon: 943 83 08 12

URANGA
burdindegia
Opati, menaje eta errentak
Tel: uranga@euskalnet.net
Telefon: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

» HANDIK ETA HEMENDIK



Google enpresaren *Model your town* lehiaketa irabazita, Google Earth atarian jarriko dute ikusgai. Orain ordenagailuko saguarekin ezagutu dezakete interneteko erabiltzaileek Getariako arratoia.”

“Elkano Getariako semea izan da; horrek munduari bira eman zion, eta orain Getariak ere mundu osoan bira emateko aukera izango du.”

Nika Lertxundi, Getariako alkatea, Urola Kostako Hitzan, 2012ko maiatzaren 17an.

» OSPAKIZUNA



Edade handiarekin eta umorez

99 urte bete zituen maiatzaren 4an Monika Salaberriak. *Señorita Mónica* bezala ezagutuko duzue askok eta askok, erretiroa hartu zuen arte ia hogeitaz jardun zelako maistra Orion. Argazkian Manuela Zubimendi du ondoan, hori ere edade handiko andrea: 95 urte. Biak aurkituko dituzue askotan elkarrekin, bata besteari konpainia egiten, umore onez eta alai. Urte askoan eta zorionak bie.

» ZORIONAK!

Talai Mendi elkartekoei

Urtea joan eta urtea etorri, Kukuarrri eguneko jaia ospatzen jarraitzen du hainbat eta hainbat oriotarrek maiatzeko azken igandean.

Tartean, Talai Mendi elkarteko kideak daude, noski. Eta horiek ez dute meritu makala. Azken urteetan Kukuarrriko egunean geroz eta jende gutxiago gerturatzen da gurutzearen ingurura, baina gora igotzen direnek badakite salda eta txorizo eta haragi egosia zain izango dutela tripa betetzeko.

Hori posible izateko, Talai Mendikoek urtero-urtero Kukuarrri eguna antolatzen arduratu hartzen dute, nahiz eta herritarrok, agian, behar bezala ez dugun eskertzen. Igandean, denok Kukuarrri!

Illegandegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - baxo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

LURDES
Illegandegia
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Zaragueta Eskola
Orio
telefonoa: 943 85 40 52
e-mail: 012137aa@hazkuntza.net

tel/fax: 943 89 00 69
Eusko Gudari 4 - 28102 ZARAUZ
URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
BASA, BAINU ERAKUSKETA

Karkara lagundu nahi dut: Karkara aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago Karkarari urteko 35 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Posta kodea:.....Tel.:.....

Kontu korronteko zenbakia:

“Euskal gizarteak zor historikoa du euskal etxeekin”

Shanti Arrieta Manterola

Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan bekaduna

Shanti Arrieta oriotarrak bi urterako Eusko Jaurlaritzako beka bat lortu eta Kanpoan diren Euskal Herriarrentzako eta Giza taldeentzako zuzendaritzaren -KEHGZ- eta Argentinako euskal etxeen arteko zubi-lana egingo du Buenos Airesen.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Buenos Aireserako bidea hartu aurretik, bere asmoen berri eman digu Shanti Arrietak. Orain arte, Argentinako euskal etxeek Eusko Jaurlaritzarekin tramite bat egin behar zutenean Gasteizko bulegoaren bitartez egiten zuten, hemendik aurrera Shanti izango dute gidari.

Nolatan aurkeztu zinen beka deialdira?

Betidunik gustatu izan zait bidaiatzea eta kanpoan bizitzen izandakoa naiz. Venezuelan nengoan, Internet bidez bekaren berri izan nuenean. Oinarriak irakurri eta pentsatu nuen *hau hitzako inia zio!* Izan ere, bekak kanpoan bizi izateko aukera emango zidan, Euskal Herriarekin harremana duen zerbaitean eta euskal diasporarekin bertatik bertara lanean.

Aurretik izan duzu harremanik euskal etxeekin?

Aspaldidanik izan dut euskal diaspora eta euskal etxeekiko interesa. 18 urterekin, Londresen bizi nintzela, hango euskal etxea ezagutu nuen. Handik aurrera beste hainbat: Caracasekoa, Mexiko Hirikoa, Madrilkoa, Bartzelonakoa, Montrealeko euskara ikasleekin ere harremana izan nuen Quebecen bizi nintzela.

Miresgarria iruditzen zait, Euskal Herriatik hain urrun egon arren, hainbat jendek euskara eta euskal kulturaren alde egiten duen esfortzua. Euskal etxeek funtzio bikoitza betetzen dute: kanpoan diren euskal herriarrei hainbat zerbitzu eskaini: euskara eskolak, dantza tailerrak, elkartzeko tokia, kirola egiteko... eta tokian tokiko biztanleen artean euskara eta gure kulturaren berri

eman liburu azoketan parte hartuz, euskal zinema edo literatura jaialdiak antolatuz... Horrelako ekintzak beharrezkoak dira euskarak atzerrian izen ona izan dezan, jakin dezaten euskara ez dela folklore hutsa, bizirik dagoen zerbait baizik eta euskara munduko beste edozein hizkuntza bezain errespetagarria dela. Beraz, euskal gizarteak ere euskal etxeekin zor historikoa duela uste dut.

Buenos Airesen ez ezik beste hainbat txokotan ere mugituko zara?

Argentinako euskal etxeek gain Brasil, Paraguai eta Uruguaiarekin lan egingo dut. Ni naiz Latinoamerikan egongo den bekadun bakarra, eta gustatuko litzaidake gainontzeko herrialdeetako euskal etxeekin ere harremana izatea.

“Miresgarria iruditzen zait, Euskal Herriatik hain urrun egon arren, hainbat jendek euskara eta euskal kulturaren alde egiten duen esfortzua”

“Gaur egungo diasporako gazte askok Euskal Herriaren irudi bukolikoa du. Uste dute euskaldunok baserri mundu idiliko batean bizi garela”

Euskal etxeetan mugimendu handia al dago?

Eusko Jaurlaritzaren arabera, 182 euskal etxe daude munduan eta horietatik 81 Argentinan eta 12 Uruguain. Argentinako populazioaren %10ek jatorri euskalduna du. Mota guztietako euskal etxeak daude, baina orokorrean nahiko aktiboak dira. Ekintza mordoa antolatzen dituzte eta jende askok parte hartzen du. Adibidez, Argentinako 33 euskal etxetan euskara eskolak ematen dira eta, aurreko lehenengoz, HABEko euskara azterketa ofizialak egin ahal izango dira Buenos Airesen.

Nola ikusten dute bigarren edo hirugarren belaunaldiek Euskal Herria?

Euskal Herriaren irudi bukolikoa dute. Argentinara joan behar izan zuten euskaldunen gehiengoa baserri mundukoa zen, eta XIX. eta XX. mende hasieran emigratu zuten, garai hartako Euskal Herriaren irudia helarazi zieten ondorengoei. Diasporako gaur egungo gazte askok uste du euskaldunok baserri mundu idiliko batean bizi garela.



IÑAKI GOIKOETXEA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaintza

■ Garbitzaile oriotarra behar da Balea elkarterako. Curriculumak elkarterko buzoian maiatzaren 25a baino lehen.
 ■ 6 eta 7 urteko bi neskari, etxean, ingeles eskola dinamikoak emango dizkien norbait behar dugu. Tf.: 618 911 008 eta 618 911 014. (Eba/Joseba).

Hartzeko

■ Animaliekin lurra lantzeko tresnak hartuko nituzke. Tf.: 697 750 196.

Saltzeko

■ Eraberritutako hiru logelako etxea eta trastelekua salgai Eusko Gudari kalean. 234.395 euro. Tf.: 636 386 663/607 580 841.

Alokatzeko

■ Garajea alokatzeko Arrantzalen, Anbulatorio parean. Tf.: 697 786 482.

Laneskaera

■ Astebukaeretan edadekoak zaindu edota baintuko nituzke. Tf.: 664 834 388 (Maria).
 ■ Edadetuak edo umeak zaintzeko. Orduka, etxean bertan bizitzen edo kanpoan. Esperientzia eta erreferentziak ere badituzte. Tf.: 630 850 167.
 ■ Neska euskaldun esperientzia duena umeak eta edadetuak arratsaldean zaintzeko prest Tf.: 609 807 151.
 ■ Bi neska prest, edadetuak edo umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko.

ko. Orduka, etxean bertan bizitzen edo kanpoan. Tf.: 699 184 832.

Alokatzeko

■ Orion Goiko Kalean etxea alokatzeko, 3 logelako, sukaldea, sala eta komuna. Garajea aukeran. Tf.: 660 670 536 (Naroe) edo 699 716 253 (Lurdes).
 ■ Aita Lertxundi, 21ean 3 logela eta garajedun etxebizitza alokatzeko. Tf.: 609 917 399.
 ■ Orio erdian 3 logelako etxebizitza dut alokatzeko. Amaia. Tf.: 608 164 971.
 ■ Neska oriotarra pisukidea bila Orion etxea alokairuan hartzeko. Tf.: 645 707 547.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
25	07:51 eta 20:06	01:42 eta 13:52	☾
26	08:32 eta 20:49	02:23 eta 14:35	☾
27	09:19 eta 21:40	03:10 eta 15:24	☾
28	10:16 eta 22:41	04:04 eta 16:22	☾
29	11:22 eta 23:50	05:06 eta 17:28	☾
30	12:32 eta	06:12 eta 18:37	☾
31	01:00 eta 13:39	07:17 eta 19:43	☾
01	02:06 eta 14:39	08:17 eta 20:44	☾
02	03:05 eta 15:33	09:12 eta 21:40	☾
03	04:00 eta 16:25	10:04 eta 22:32	☾
04	04:51 eta 17:14	10:54 eta 23:23	☾
05	05:41 eta 18:02	11:42 eta	☾
06	06:30 eta 18:50	00:12 eta 12:29	☾
07	07:18 eta 19:38	01:01 eta 13:17	☾
08	08:08 eta 20:27	01:50 eta 14:05	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA	Azaldegi:
■ 25ean, Lasa.	Urdaneta kalea, 8. 94313 31 83 Zarautz
■ 26an eta 27an, Zulaika.	Etxeberria: Gipuzkoa, 17. 943 83 23 98 Zarautz
■ 28an, Gallo.	Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
■ 29an, Etxeberria.	Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 94313 38 14 Zarautz
■ 30ean, Iriarte.	Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
■ 31n, Azaldegia.	G. Artifiano: Zigordia kalea, 17. 94313 40 19 Zarautz
EKAINA	Iriarte:
■ 1ean, Zulaika.	Zinkunegi, Pilarxko Enea. 943 13 29 83 Zarautz
■ 2an eta 3an, Etxeberria.	Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 94313 39 94 Zarautz
■ 4an, Larrañaga.	
■ 5ean, Gallo.	
■ 6an, Azaldegia.	
■ 7an, Zulaika.	
■ 8an, Iriarte.	

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:17	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45		16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Jaunartzeakoak Xixarion

1962an jaio eta 1971n jaunartzea egin zuten oriotarrek bazkaria izango dute ekainaren 2an Xixario jatetxean. Baina, besteak beste, aurten 50 urte bete edo beteko dituztela ospatzeko, bazkaritara joan nahi dutenek argi ibili beharko dute eta izena ematera Tapatxulora, Eskolastikanera, Oilagorrara, Txirlara, Mari Karmen futbolinetara edo Maria maestranera joan beharko dute; bestela, Uranga burdindegira.

Plazan. Helduak: 13 euro; 12 eta 16 urte bitartekoak: 7 euro. Aurrez erreserba egiteko turismo bulegora joan edo 943 83 55 65ra deitu.

Meskita

■ Egunean bost otoitz. Ordu-tegia www.islamicfinder.org helbideko *Prayer Times* atalean.

Mezak

■ Astegun, larunbat eta jai bezperetan, 19:00etan. Igande eta jai egunetan, 09:00etan eta 12:00etan. Bariko San Nikolas elizan.

Aia

Erromeria

■ Maiatzaren 27an, erromeria Tapia eta Leturia trikitilariekin. Ekainaren 3an, erromeria. 18:30etik 21:30era, Aristerrazu plazan.

Mezak

■ Astegunetan, 08:00etan. Larunbat eta jai bezperetan, 20:00etan. Igande eta jai egunetan 10:30ean. San Esteban elizan.

Orio

Generazio arteko Eguna

■ Maiatzaren 26an, belaunaldien arteko elkartruke eguna. Dantza, trikitilari eta txistulariekin, 11:00etan, herriko kaleetan; Mandala tailerra, 12:00etan eta 12:30 Egoitz Eizagirre eta Patxi Etxeberria bertsolariak, Herriko Plazan. etara, Kultur Etxean.

Erakusketa

■ Maiatzaren 28tik ekainaren 11ra, Donejakue bidean ateratako argazkien erakusketa. 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, Kultur Etxean.

Bilera

■ Maiatzaren 29an, antzerki taldea sortzeko batzarra. 19:00etan, Kultur Etxean.

Bingoa

■ Maiatzaren 30ean eta ekainaren 6an, bingo saioa adinekoentzat. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Hitzaldiak

■ Maiatzaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Sailaren eskutik, *3. adineko oinezkoen zirkulazio istripuak eta kolpeak saihesteko erak* hitzaldia. 18:30ean, Kultur Etxean.

■ Ekainaren 1ean, Maria Maestra haurreskolako guraso elkarrekin antolatuta, *Ez dut zigortu nahi* hitzaldia. Hizlaria: Nerea Mendizabal. Doan. Hitzaldira joateko ez da umea haurreskolan ibili beharrik. 17:30ean, Kultur Etxean.

Informatika

■ Maiatzaren 31n, 11:00etatik 13:00etara; ekainaren 1ean 18:00etatik 20:00etara eta

ekainaren 5ean 16:00etatik 18:00etara, IT txartela -Informatzioaren Teknologien Erabilera-ziurtagiria- ateratzeko azterketak, KZgunea.

Ikastaroa

■ Ekainaren 1ean eta 15ean, ta-loak egiten ikasteko ikastaroa. 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea: 646 098 753 edo garazi.elortza@ingema.es.

Bazkaria

■ Ekainaren 2an, 1943koen bazkaria 14:00etan, Hondartzako Galerna jate-txean. Izena emateko, Fernando Larrañagari -943 83 26 66- deitu, maiatzaren 28a baino lehen.

Irteera

■ Ekainaren 2an, ordu eta erdiko kayak ibilaldia erri-otan barrena. 16:00etan, Herriko

karkarak

behar zaitu

